



**Idiazabalgo**  
Udala

## **OHIKO UDALBATZARRA**

**2022ko abenduaren 22an**

**LEKUA:** Udaletxeko Batzar Gela

**LEHENDAKARIA:** Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Aloña Barandiaran Munduate (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo( EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza(EH BILDU)

Aritz Ugarte Munduate.(EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain(EH BILDU)

Ioritz Imaz Baztarrika (IZAL BAI)

**EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Aitzol Mendizabal Malkorra (IZAL BAI)

Andoni Gomez Aldanondo (IZAL BAI)

Igor Ariztimuño Iparragirre (IZAL BAI)

Iker Zabaleta Urcelai (IZAL BAI)

**IDAZKARIA:** Garazi Arraibi Larrea

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**ORDUA:** Hasiera: 18:00etan

### **GAI ZERRENDA**

**1.Aurreko akta onartzea, hala badagokio.**

Onartzen da.

**2. Dekretuen berri ematea.**

Ez da ezer komentatzen.

### **3. Haur eskolaren partzuergoari eskaera aurkeztea eskolako gelen erabileragatik, hala badagokio**

Puntu hau bozkan jartzen da eta AHOBATEZ onartzen da.

### **4. Pilarreneako tarifei buruz informatzea**

Ioana Pradosek informatzen du kontzertatuen plazetako langileen soldatak, gutxiengora iristen ez direnak, %6ra igotzea esan duela Aldundiak eta Pilarrenea kudeatzen duen enpresak, Laugarak, konfirmatu duela 2023an egingo duela 2022ko erregularizazioa.

### **5. Errekarteko permuta onartzea, hala badagokio**

Ahobatez onartzen da.

### **6. Urbizu auzoko inbertsioaz informatzea**

Alkateak informatzen du aurrekontuaren zain dagoela eta horren arabera erabakiko dela nola banatu gastua.

### **7. Gurutze Berriko pleguen berri ematea**

Gurutze Berriko obra egiteko pleguetan azaltzen den epaimahairako Udaletxetik kanpoko aholkuritza teknikoaren laguntza izatea komenigarri ikusten dute bertaratuek.

Pleguak Osoko Bilkuratik pasa behar diren galdetzen da, obraren kantitatea dela eta.

### **8. Galderak eta eskaerak**

Langileen plantilla 2023rako ahobatez onartzen da.

Ez dago bestelako galdera edo eskaririk.

Bilera arratsaldeko 18:30etan bukatzen da.

Idiazabal, 2022ko abenduaren 22an.

ALKATEA

Iñaki Alberdi

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

Garazi Arraibi